

2020ko kultura-arloko Finantzaketaren eta Gastu Publikoaren estatistika

Emaitzen laburpena

2022ko iraila



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Gastu kulturala	4
3. Kultura, gastu publikoaren multzoan	5
4. Gastu likidatuaren azterketa ekonomikoa	6
5. Sektoreari begirada bat	7
6. Enplegu publikoa	8


1. Sarrera

2020ko kultura-arloko Finantzaketaren eta Gastu Publikoaren estatistikaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu aurrerapen gisa, eta laster argitaratuko da horri buruzko informazio osoa.

Covid-19ak eragindako krisiak 2020. urtea espero zenarekiko oso desberdina izatea eragin zuen, eta jarduera ekonomiko gehienek jasan zuten inpaktua oso handia izan zen, jarduera horien artean kultura-esparrua bereziki nabarmentzen delarik. Urruntze sozialeko neurriek eta zenbait motatako debekuak aplikatzeko premiak 2020. urtearen zati handi batean kultura-jarduera bertan behera uztea eragin zuten.

Estatistikaren helburua Covid-19aren krisiak gastu publikoan eta kulturaren finantzaketan izan duen inpaktua neurtzea izan ez bada ere, 2020ko datuetan nabarmena da krisi horrek sektorean izan duen inpaktua, batez ere gastu mota batzuetan eta azpisektore jakin batzuetan. Estatistika honi dagokion txostenean aztertuko da hori guztia.


2. Gastu kulturala



EAEko administrazio publiko guztien gastu likidatuaren batura 518.452.898 euro da guztira. Kulturako gastu kontsolidatua **381.324.188** euro da, 2018an baino % 9,9 gutxiago eta 2010. urtean lortutakoaren % 20,4.


3. Kultura, gastu publikoaren multzoan

4. Gastu likidatuaren azterketa ekonomikoa



Udalek beren aurrekontuaren % 7,1 eskaintzen diote kulturari. Kultura-ahalegin horren balioa txikiena da 2008. urtean seriea hasi zenetik.

Foru-aldundiak kulturaren duten gastua **aurrekontu totalarekiko % 2,6 da** 2020. urtean, eta aldundiek ere gastua murriztu egin dute 2008az geroztik. **Eusko Jaurlaritzak** parametro beretan (% 0,7) **atxikitzen du bere kultura-ahalegina.**




Eusko Jaurlaritzaren gastu arrunta % 16 gehitu da iazko edizioarekiko (56,1 milioi eurotik 65,0 milioi eurora), erakunde handietarako transferentzia arruntan hazkundearengatik eta pandemiak sektoreari zuzendutako ezohiko laguntzengatik.

Foru-aldundiak beren gastu arrunta atxiki dute eta kapital-gastua % 25 gutxitu dute, inbertsioetan izandako beherakadarengatik (6,6 milioi eurotik 3,6 milioi eurora).

Udalek % 10 murriztu dute beren gastu arrunta. Ondasun eta zerbituetako gastu arruntetan gertatu da gutxitze handiena (20 milioi euro gutxiago), eta 53,5 milioi euroan dago orain (serie estatistiko osoko baxuena). Kapital-gastuak ere murriztu dituzte (8 milioi gutxiago), % 4,5era iristeraino.

5. Sektoreari begirada bat

Gastuak sektoreka




Musika da rankingaren buru sektoreka, atzetik Kultura-ekintza eta Museoak dituela.

Lau sektoretan gehitu da gastua: Literatura eta edizioa (% 27ko igoera), Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 19), Ikusmen-arteak (% 10) eta Museoak (% 0,3ko igoerarekin).

Gainerako sektore guztietan gastua gutxitu egin da. Beherakada handiena Jaiak eta herri-kultura, Kultura-ekintza, Artxiboak eta Bertsolaritza ataletan gertatu da (% 63, % 23, % 22 eta % 16, hurrenez hurren).



6. Enplegu publikoa



2020. urtean 3.423 kultura-lanpostu erregistratu dira EAEko administrazio publikoetan, % 83 enplegu propioei dagokie eta % 17 azpikontrataturako lanpostuei.

Bilakaerari dagokionez, estatistikaren hasieratik ikusi zitekeen goranzko joera hautsi da. Enplegu propioan % 2ko gutxitzea gertatu da (59 lanpostu gutxiago) eta azpikontratatuan % 28koa (224 lanpostu gutxiago).

Enplegu propioaren azterketa sexuaren arabera (absolutuak)



Enplegu propioaren % 56 dira emakumeak (1.585 emakume).

10 lanpostutatik 9 baino gehiago zeregin teknikoez eta kudeaketa-zereginenez arduratzen dira (2.633 lanpostu guztira). Emakumeek gizonak gainditzen dituzte bi profiletan.